

Karrera amaierako diplomak banatu zaizkie HUHEZIKo 315 ikasleri

2010/06/21

Ekainaren 18an arratsaldeko 18:30ean Eskoriatzako kiroledegian diplomak banatu zitzaizkien HUHEZIKo **315 ikasleri**, espezialitate hauetakoak: **Hezkuntza, Psikopedagogia, Bigarren Diploma, Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Humanitateak-Enpresa**. Egun hartakoa mugarria izan zen, lehen aldia izan baitzen espezialitate guztietako ikasleei batera eman zaizkiela diplomak.

Hitzaldia Juanjo Otaño irakasleak egin zuen: "persona izatearen prozesua" izan zen bere hitzen gaia. Ekitaldiaren bukaeran, ikasleek musika jo, kantatu eta dantza egin zuten.

Ekitaldiko **argazkiak** [Flickr-en](#) daude ikusgai.

